| 10. Norberaren aferak (propioak). | Urteko 3 egun (ez ikasturteko) etapa guztietan, edo zerbitzu denboraren proportzioan hurrengo urteko urtarrilaren 31 arte.<br>Ez dago mugarik, jaiegun edo oporren bezperan har daiteke, baita 2 edo 3 egun jarraian ere.<br>Orduka izan daiteke ((7 or. 25' x 3 = 22 or. 15', baina ordu bakoitzeko 1or. 13' deskontatzen dute).<br>Antzinatasunaren arabera egun kopurua areagotzen da: 18 urterekin 2 egun gehiago/urteko. 24 urterekin 3 egun gehiago. 27 urterekin 4 egun gehiago. Hortik aurrera 3 urtero egun bat gehiago. | Eskaera ikastetxeko zuzendaritzari. Ukatuz gero arrazoitu egin behar dute eta idatziz edo postaz jakinarazi.<br>EDUCAn, "langileak", "norberaren aferak" fitxan. | Ikastetxeko zuzendaritza. | 11/2009 FD, 24. NAO (30. art.).<br>5/2013 FD, 22. NAO (30.3 art.).<br>71/2017 FD, 168. NAO (30. art.).<br>24/1997 FD, 30.d art.<br>25/1997 FD, 30.d art.<br>12/2023 FL, 23. xedapen gehigarria. |
| 11. Odola ematea. | Ezinbestekoa den denbora. | Hori egin izanaren frogagiria. | Ikastetxeko zuzendaritza. | 71/2017 FD (28. art. bis.). |
| 12. Errenta aitorpena aurkeztea. | Ezinbestekoa den denbora. | Hori egin izanaren eta lanaldian egin behar izanaren frogagiria. | Ikastetxeko zuzendaritza. | 71/2017 FD (28. art. ter.). |

## Familiartekoen gaixotasun eta heriotzagatiko lizentzia eta baimen ordainduak

<table>
<tr><th></th><th colspan="9">Baimen ordainduak</th><th>Lizentzia ordainduak</th></tr>
<tr><td rowspan="4">Gertakaria</td><td colspan="2" rowspan="2">Heriotza</td><td colspan="2">Ospitalizazioa<br>> 5 egun</td><td colspan="2">Ospitalizazioa<br>≤ 5 egun</td><td>Kirurgia anbulatorio handia</td><td>Akonpainamendua</td><td>Jardunaldia egokitzea</td><td>Gaixotasun oso larria duen familiartekoa</td></tr>
<tr><td colspan="4">Ospitaleratzearekin edo gabe</td><td rowspan="4">Etxera itzultzea esku-hartzearen egunean, egun hori zenbatuta, lanaldiaren ondoren ez bada.</td><td rowspan="4">Prozedura kirurgikoak eta diagnostikoak. Proba egingo den egunarekin bat etorriko da.</td><td rowspan="7">Lanean hastea tratamendu medikoen ondoren (erradioterapia, kimioterapia edo beste tratamendu larri batzuk, mediku txostenaren arabera):<br>- Lanaldiaren % 25 arte pixkanaka egokitzea.<br>- Hilabete. Beste hilabete luza daiteke efektuek irauten badute.</td><td rowspan="7">Gehienez hilabete bat, lanaldiaren %50 arteko murrizketa; %100ko soldatarekin.<br>Orduak akumulatu daitezke. 18 urte arteko seme/alabarentzat, %99,99, premia ziurtatuz gero.<br>Bi gurasoek lan egin behar dute.<br>Minbizia edo bestelako gaixotasun larria duen adingabeko semea zainduz gero, ez da beharrezkoa adingabearen ospitalizazioa zainketa zuzen, jarraitu eta etengaberako.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ondoz ondo edo egun solteetan, heriotza egunetik hilabeteko epean.</td><td colspan="4">Gaixotasunak edo ospitaleratzeak iraun bitartean; azken kasu horretan, ospitaleko alta jaso ondorengo 15 egunetan, zerbitzuarekin bateragarria izanez gero.</td></tr>
<tr><td colspan="6">Lanegunak</td></tr>
<tr><td>Ahaidetasuna</td><td>Nafarroan</td><td>Nafarroatik kanpo</td><td>Nafarroan</td><td>Nafarroatik kanpo</td><td>Nafarroan</td><td>Nafarroatik kanpo</td></tr>
<tr><td>Aita/ama, ezkontidea/bikotekide egonkorra, semea/alaba</td><td>4 egun</td><td>5 egun</td><td>4 egun</td><td>5 egun</td><td>1 egun</td><td>2 egun</td><td>2 egun</td><td>1 egun</td></tr>
<tr><td>Anaia/arreba, aitaginarreba/ amaginarreba, suhia/erreina</td><td>3 egun</td><td>4 egun</td><td>3 egun</td><td>4 egun</td><td>1 egun</td><td>2 egun</td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>Koinatua/koinata, aitona/amona, biloba</td><td>1 egun</td><td>2 egun</td><td>1 egun</td><td>2 egun</td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

**Legedia:** Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua, 24. NAO (13. bis eta 22.-26. art.); urtarrilaren 23ko 5/2013 Foru Dekretua, 22. NAO (26. art.) eta abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretua, 168. NAO (10. bis, 13. ter. eta 22.-26. art.).

**Dokumentazioa:** Mediku ziurtagiria aurreikusitako egunekin (ospitaleratzea), mediku ziurtagiria (kirurgia) edo Osasun Zerbitzuak betetako adierazpena (gaixotasun oso larria duen familiartekoa). Heriotzaren kasuan ez da behar.

**Ematen du:** Zentroaren zuzendaritzak, eta, familiartekoen gaixotasunen kasuan, Giza Baliabideen zerbitzuak.

**Oharrak familiartekoen gaixotasun edo heriotzagatik:** Baimen ordainduaren egun kopurua ezartzeko, baimena eragin duen gertakariaren egunetik aurrera dagozkion lanegunak zenbatuko dira. Baimena eragin duen gertakariaren eguna ez bada laneguna, hurrengo egun naturaletik aurrera zenbatuko dira. 5 egunetik gorako ospitaleratzeetan, gaixotasunak iraun bitartean edo ospitaleko alta hartu ondorengo 15 egunetan hartuko dira.

## Ordaindu gabeko lizentziak eta baimenak

11/2009 FD, otsailaren 9koa, 24. NAO; 1/2002 FD, urtarrilaren 7koa (17. NAO) eta 39/2014 FD, maiatzaren 14koa,105. NAO

| Kontzeptua eta oharrak | Iraupena | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| **1. Norberaren eginkizunak.**<br>11/2009 FD,<br>24. NAO (15. art.)<br>1/2002 FD<br>17. NAO (12.2 art.) | Bi urtean behin bost hilabete gehienez.<br>Eskatutako baimena agortu behar da.<br>Luzapena eska daiteke, justifikatuta badago.<br>Soldata gordinaren eta Gizarte Segurantzako kotizazioaren deskontua.<br>(Deskontuaren zenbatekoa jakiteko, deitu Nominen atalera: 848 426 627). | Motibazio idatzia eta dagozkion frogagiriak.<br>Lanaldi partzialarekin ere eska daiteke.<br>Ezarritako kasuen araberako ordezkapena. Arrazoia kasuetan ez badago, Zuzendaritzaren txostena behar da, ados dagoela eta ikasleen arreta bermatuta dagoela adieraziz.<br>Eskola garaian, bidaia pertsonaletarako ez da baimenduko. Soilik ordezkapenik behar ez duten eta zuzendaritzaren oniritzia duten egoeretan baimenduko da. | Erregistro Orokor bidez, eskaeraren osagarri gisa egokitzat jotzen den informazioarekin.<br>Ikastetxeko zuzendaritzaren oniritzia bide hauetako batetik:<br>- Zuzendaritzaren sinadura instantzian.<br>- Eskabidea.<br>- Zuzendaritzak mezu bat bidaltzea Administrazio Kontrolera (nca@navarra.es), oniritziarekin.<br>Ordezkapena beharrezkoa bada, bakarrik:<br>- Bigarren mailarainoko senideak edo bizikideak zaintzea.<br>- Haur eskolara edo ikastetxera egokitzeko aldia.<br>- Gizarte eta kultura interesekoa Nafarroarentzat edo Gobernuaren zereginak.<br>- Zuzeneko prestakuntza Zuzendaritzak hala uste badu.<br>- Oposizioak prestatzea, nahitaezkoa 5 hilabete.<br>- Ordezkapen bat amaitu ondoren, ikasleentzat onuragarria bada. | Eskaerek arrazoituak izan beharko dute.<br>Oporrak aurretik hartzea ez da beharrezkoa.<br>Oporrak hartzeko eskubiderik ez du sortzen eta ordainsari deskontuan ez da kontutan hartuko. Aurretik hartu badira, bai ordea.<br>6 hilabetetik gorako kontratua duten langileak. |
| **2. 6 hilabeteko baimena (enpleguaren banaketa).** | Ezarritako bi epeetan, otsailetik uztailera edo abuztutik urtarrilera; edo ikasturte osoa lotuz.<br>Lanpostu huts bat edo erreserbatutako plaza bat duten funtzionarioek eta kontratudunek, baldin eta zerbitzuak urtebete irautea aurreikusten bada.<br>Gizarte kotizazioei % 100ean eutsiko zaie, kuota finkoak kenduta (erretirorako ez dago galerarik). | Urte osoan % 50 kobratzea edo lanean aritutako hilabeteetan % 100 kobratzea eta baimena hartutako 6 hilabeteetan ez kobratzea aukera daiteke.<br>Ordezko langileek baimena otsailetik uztailera soilik hartu ahal izango dute. | Giza Baliabideen zuzendaritza zerbitzua.<br>Eskaera epea:<br>Funtzionariak: baimenaren hasiera baino 15 egun lehenago gutxienez.<br>Kontratatuak: ahalik eta azkarren.<br>Beste lan batzuetan aritzeko aukera, baina bateragarritasuna eskatu behar da, Zerbitzu Juridikoari zuzendutako instantzia bitartez. Enpresaren ziurtagiria erantsi behar da, lanegun eta ordutegiekin. Zerbitzuak kasuz kasu ebazten dira. | Eskariari uko egin ahal zaio soilik ordezkapena eskaini ez den bitartean -Funtzio Publikoaren irizpidea- |
| **3. Hein batean ordaindutako baimena.** | 30 hilabeteko epea jarraian, ematen denetik zenbatzen hasita; horietako 24tan zerbitzuak lanaldi osoan eskainiko dira eta seitan baimena hartuko da.<br>Bi ikasturteetan nahiz 6 hilabeteetan, ordainsaria % 84koa izango da, aldagaietan izan ezik, eta gizarte kotizazioak proportzionalki murriztuko dira. | Bi urte lanaldi osoan eta 6 hilabete hartzeko, otsailetik uztailera edo abuztutik urtarrilera. Funtzionariek bakarrik eska dezakete. | Instantzia orokorra.<br>Hezkuntza Baliabideen zerbitzuen zuzendaritza.<br>15 egun lehenagoko epea, baimena hasi baino lehen. | Eskariari uko egin ahal zaio soilik ordezkapena eskaini ez den bitartean -Funtzio Publikoaren irizpidea-. |
| **4. Hobekuntza profesionaleko ikastaroak.** | 9 hilabete gehienez, 3 urtean behin. | Azterketak, probak edo prestakuntza jarduerak gauzatu izanaren ziurtagiria. | Zerbitzuaren kudeaketak eta lanaren antolakuntzak ahalbidetzen badute. | 11/2009 FD, 24. NAO (8. art.). |

## Lizentzia eta baimenei buruzko ohar orokorrak

Interinoek lizentziak eta baimenak hartzeko eskubidea dute 1/2002 FD, 17. NAO (12.2 art.).

Baimenak 10 egun naturaleko aurrerapenarekin eskatuko dira. 11/2009 FD, 24. NAO (23.4 art.). Gehienez ere 20 egun izango dira ebazteko. Epe hori igaro ondoren berariazko jakinarazpenik egin ez bada, eskaerak onartuko direla ulertuko da, administrazio isiltasunaren bitartez. 5/2013 FD, 22. NAO (3. art. bis.).

Pertsona berak ezingo du beste baimenik eskatu kausa beragatik hilabeteko epean. 11/2009 FD, 24. NAO (25. art.).

Egun motak:

- Egun naturalak: igandeak eta jaiegunak barne.
- Lanegunak: astelehenetik ostiralerako lanegunak.
- Egun baliodunak: lanegunak dira (larunbata barne). Urtero agertzen dira NAOn.

Oporrak:

Aldi baterako ezintasunagatik edo beste egoera batengatik oporrak hartu ezin izan dituzten langileek konpentsazioa eskatu ahal izango dute. Funtzionarioek lanera itzuli eta berehala hartuko dituzte. Interinoei dagozkien egunak ordainduko zaizkie. Bi kasuetan Hezkuntza Baliabideen atalean eskatu behar da.

5/2013 FD, 22. NAO (6.6 eta 7. art.).

## Eszedentzia bereziak eta borondatezkoak 251/1993 LFD, abuztuaren 30ekoa, 107. NAO

| Kontzeptua | Iraupena | | Dokumentazioa | Eskaera | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eszedentzia bereziak (funtzionarioak eta interinoak). Uda kontratua luzatze aldera aintzat hartuko da** | | | | | |
| **3 urtetik beherako seme/alaba naturala edo adoptatua edo harrerakoa zaintzea.** | Ez da hiru urtetik gorakoa izango (jaiotzen denetik edo seme/alabaren zaintza kasuetan ebazpenaren egunetik).<br>Edozein unetan eska daiteke lanean berriz hastea (hasi baino 15 egun lehenago gutxienez).<br>**Funtzionarioa:** Aurrez lanean hasiz gero, behin bakarrik eskatu ahal izango da subjektu bererako beste epe bat gelditzen den denboran gehienezko epera arte (gutxienez 6 hilabete pasa behar dira).<br>Eszedentzia berezian dauden **irakasle kontratatuek** ekainean lanpostu bat har dezakete eta instatzia orokor bat bidali lanpostura itzultzeko eskaera eginez eszedentzia amaitu nahi duenean. | | • Eskaera Giza Baliabideak atalari, hasiera data adierazita eta beste jarduerarik ez egitearen adierazpena aurkeztuta (Hezkuntzaren web orrian: eszedentziak).<br>• Familia liburuaren fotokopia. | Hezkuntza Baliabide Zuzendaritza. | 3 urte bete arte, jubilaziorako kotizatzeko, plaza gordetzeko eta hirurtekorako, gradurako eta lekualdatze lehiaketarako antzinatasuna zenbatzeko eskubidearekin, baina eskubide ekonomikorik gabe. |
| **Norbere kargurako familiartekoa zaintzea bigarren mailako odolkidetasun edo ahaidetasunera arte.** | | | • Eskaera Hezkuntza Baliabide atalera, hasiera data adierazita eta beste jarduerarik ez egitearen adierazpena aurkeztuta (Hezkuntzaren web orrian: eszedentziak).<br>• Gizarte Zerbitzuen edo Osasun Zentroaren txostena, artatu behar duen pertsona hura izan behar izatearen premia adierazita. | | |
| **Borondatezko eszedentziak (funtzionarioak soilik)** | | | | | |
| Beste administrazio publiko batean zerbitzuak eskaintzea. | Denbora mugagabean, urtebete gutxienez.<br>Berriz lanean hastea adostu ondoren, hilabeteko epean gauzatu beharko da. | Urtebete gutxienez | • Eskaera Giza Baliabideak atalari, hasiera data adierazita (Hezkuntzaren web orrian: eszedentziak irakasleentzat nahiz irakasle ez diren langileentzat).<br>Eszedentzia berezia — Klikatu<br>Borondatezko eszedentzia — Klikatu | Hezkuntza Baliabide Zuzendaritza. | Maila, gradua eta antzinatasuna gordeko dira, baina ez da izango eskubide ekonomikorik.<br>Denbora ez da inola ere zenbatuko.<br>Sarbide bidezko oposizio lehiaketan parte hartzeko aukera. |
| Administrazio berean beste lanpostu bat betetzea. | | | | | |
| Zuzendaritza karguak alderdi politikoetan, sindikatuetan edo lanbide bateragarriak. | | | | | |
| Interes partikularra. | Plaza gordeko da 18 hilabetez, zerbitzuaren beharrek baimentzen badute eta 2 urte lehenago zerbitzu aktiboan egon izana egiaztatzen bada.<br>Denbora hori pasata lanera itzuli nahi izanez gero, eta lanpostua hutsik ez badago, behin betiko destinoa galtzen da. | | | | |

ADI!
2024-2025 ikasturtean zenbait zerrendetan aldaketak egonen dira!

# Zerrenden kudeaketa araudia Apirilaren 8ko 37/2020 FA

| Zerrenda motak | Betebeharrak | Puntuazioa/hurrenkera | Indarrean noiz arte | Oharrak |
|---|---|---|---|---|
| 1. **Funtzionario plaza lortu ez duten LEP aprobatuak** | Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan oposizio aldia gainditu izana, funtzionario plazarik lortu gabe. | Oposizio eta lehiaketa faseen batuketa haztatua (ponderatua). | Zerrendak berregin arte. | Hiru plazetatik lehena % 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten zerrenda honetako pertsonentzat izanen da. |
| 2. **Kontratazioko izangaien zerrenda orokorra** | a) **Azken oposizioaldira aurkeztuak dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan eta baldintza hauek betez:**<br>**1.** Lehenengo ariketara aurkeztu izana.<br>**2.** Oposizio fasean puntuazio positiboa lortu izana +0.<br>**3.** Espezializtzatean eskatzen den titulazioa izatea (I. Eranskina). Ez da beharrezkoa izanen lehendik zerrendan zeudenentzat.<br>**4.** Irakaskuntzarako edo espezialitaterako gaitasun faltagatik aurretik kanporatua ez izatea.<br>**5.** Ariketa praktikoa gainditu izana zerrendetan mantentzeko beharrezkoa den espezialitateetan. | II. Eranskina<br>**I.** Aurretiko esperientzia irakaskuntzan (10 puntu max.).<br>**II.** Formakuntza akademikoa (5 puntu max.).<br>**III.** Bestelako merituak (2 puntu max.).<br>**IV.** Oposizio fasearen emaitza (oposizio fasearen emaitzen batezbesteko aritmetikoa). | Hurrengo oposizio edo zerrendak berregin arte. | Bi atal hauen arteko berdinketarik egongo balitz, honela ebatziko lirateke:<br>**1.** Merezimendu baremoan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean.<br>**2.** Merezimendu baremoko azpi ataletan puntuaziorik altuena, II. Eranskinean agertzen diren ordenean.<br>**3.** Lehenengo abizenaren arabera alfabetikoki ordenatua (beharrezkoa bada, bigarrenarena), egindako letren azken zozketaren arabera. |
| | b) **Aurreko oposizioan funtzionario plaza lortu ez zutenak edo zerrenda orokorrean sartu zirenak eta baldintza hauek betez:**<br>**1.** Edozein kidego, espezialitate eta hizkuntzatan lehen ariketan aurkeztu izana 2019ko urtarriletik aurrera ospatutako LEPetan.<br>**2.** Oposizio fasean puntuazio positiboa atera izana +0. | II. Eranskina (Gaineko informazioan dagoen baremo berbera).<br>2021eko LEPetik aurrera, espezialitate batera aurkeztuz gero, irakaskuntza lan esperientzia baremаtuko da jada dagoen gainerako zerrendetan. | | |
| | c) **Oposizioa deitzen den espezialitatean, ikasturte berean kidego, espezialitate eta hizkuntza horretan gutxienez kontratu bat izan duten pertsonak**, eta zerrenda orokorrean egoteko behar diren titulu eskakizunak betetzen dituztenak. | Aurreko atalen atzean eta jatorrizko zerrendetan zeuden ordenean, baina puntuaziorik gabe. | | |
| | **Zerrenda orokorrera gehituko dira (titulu eskakizunak beteta):**<br>- Berariazko zerrendetatik.<br>- Kontratazio deialdi berezien bidez sartuak.<br>- Web deialdian kontratu bat onartuta.<br>- Antzeko zerrendetatik kontratatuak. | Puntuaziorik gabe eta bertan daudenen atzean, zerrenda horretan sartzearen data, ordua, minutu eta segunduaren arabera. Eta berdinketa egotekotan, kontratua egin zieten zerrendan zeuden ordenaren arabera. | | |

**Zerrenda orokorraren berrantolamendua:** azken bi urteotan oposizioa deialdirik egon ez den espezialitatetan eta hizkuntzetan, indarrean dagoen baremoa ezarriko da. 2019ko urtarrilaren 1a ondotik izanen diren oposizioetan, kontrakoa adierazten ez bada, Departamentuak ofizioz 2012tik azken 3 oposizio deialdietan ateratako puntuaziorik altuena gordeko du (beti ere kidego, espezialitate eta hizkuntza berean).

<table>
<tr><th></th><th>Zerrenda motak</th><th>Betebeharrak</th><th>Puntuazioa/hurrenkera</th><th>Indarrean noiz arte</th><th>Oharrak</th></tr>
<tr><td rowspan="5">Zerrenda orokorrean sartuta</td><td rowspan="2">3. Berariazko zerrendak (irekiera edo proba bidez sartuak)</td><td>a) Zerrenden irekiera bidez: Eskari orria aurkeztuz eta kidego, espezialitate eta hizkuntza (behar izanez gero profila ere) horretarako betebeharrak egiaztatuz.</td><td>Eskatutako tituluaren batezbesteko emaitza. Berdinketa egotekotan, istantzia aurkezpenaren ordenaren arabera ebatziko da.</td><td rowspan="2">• Dagokion kidegoan, espezialitatean eta hizkuntzan sartzeko beste deialdi bat ebatzi arte.<br>• Berariazko zerrendan sartzeko proba egitea eskatzen den zerrendetan, espezialitate horretan aurretik proba gabe osatu ziren zerrendak baliogabetuko ditu.</td><td rowspan="2">• Urtean bi aldiz behintzat irekiko dira zerrendak, eta ikasturtean zehar espezialitate guztiak irekitzea bermatuko da.<br>• Deialdia argitaratu ondoren, izena emateko 20 egun naturaleko epea egonen da. Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren, 10 lan eguneko epea egongo da erreklamatzeko. Honen ondoren behin betiko zerrendak argitaratuko dira.</td></tr>
<tr><td>b) Proba deialdien bidez: Musika eta Arte Eszenikoetako katedradun eta irakasleentzat proba gainditzea eskatuko da. Lanbide Heziketa eta Arte Plastiko eta Diseinuko irakaskuntza profesionaletako espezialitateetan, aldiz, Zuzendaritza Nagusiaren informearen arabera.</td><td>Probaren guztizko emaitzaren arabera (10 puntu gehienez eta baztertzailea izanen da erdia gainditzen ez dutenentzat. Bi zati edo gehiago izanez gero, zati bakoitza izanen da baztertzaile). Berdinketa egotekotan, probaren guztizko emaitzaren arabera.<br>Deialdi bat baino gehiago eginez gero, geroagokoan hautatuak izan direnak, zerrendan zeudenen atzetik txertatuko dira.</td></tr>
<tr><td>4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) bidez hautatutako izangaiak</td><td>Zerrendetan izangairik ez dagoenean, Departamentuak eskakizunak betetzen dituzten lan-eskatzaileak gehituko ditu.</td><td>Nafarroako enplegu zerbitzuak bidalitako zerrendan ezarritako hurrenkera berean</td><td>NEZek zerrenda berriak osatu arte (gehienez 3 urte).</td><td></td></tr>
<tr><td>5. 2019/2020 ikasturtean kontratatutako eta eskakizunen bat betetzen ez duten pertsonen zerrenda</td><td>2019-2020 ikasturtean aldi baterako kontratu administratiboa sinatu izana, eta 37/2020 Foru Aginduaren I. eranskinean ezarritako baldintzak ez betetzea.</td><td>Zerrendan ordenatuko dira kontratatua izan zen unearen arabera.</td><td>Zerrenda iragankorra izango da, 2020/2021 eta 2021/2022 ikasturteetan bakarrik indarrean egonez.</td><td>Zerrenda honen bidez kontratatutako pertsonak ez dira zerrenda orokorrera pasatuko masterra entregatu arren.<br>46/2020 FA, maiatzaren 16koa.</td></tr>
<tr><td>6. Kontratazio deialdi bereziak</td><td colspan="4">Beharragatik eta zerrendetan inor ez dutenean kontratu bereziak eginen dira bete behar den lanpostuari hobekien egokitzen zaion pertsonari eskainiz, aurretik honako prozedura jarraiki, beti ere:<br>- Ikastetxeko zuzendaritzaren txostena lanpostua lehen bait lehen betetzearen garrantzia eta beharra azalduz.<br>- Departamentuko atalaren txostena zerrenden agortzea azalduz eta justifikatuz.<br>- Dagokion atalaren idatzizko baimena, kontratazio bereziari bide emanen diona.</td></tr>
</table>

# Lanpostu hornikuntza

## Egonkortze oposizio-lehiaketatik eratorritako aldi baterako kontratazio-zerrendak, atzerriko hizkuntzaren betekizunik gabe

Zerrendaren kudeaketak orain arte bezala jarraitzen du:

1. Plazarik gabeko gainditduen zerrenda (Lehentasunezkoa).
2. Kontratazziorako izangaien zerrenda orokorra.
   a) Dagokion kidego, espezialitate eta hizkuntzan azken oposizio aldira aurkeztutakoak.
   b) Plazarik gabeko gainditduen zerrendan edo azken oposizio aldian zerrenda orokorrean sartu zirenak.
   c) Kidego, espezialitate eta hizkuntza berean gutxienez kontratu bat izan duten pertsonak oposizioak deitzen diren ikasturtean.

   Zerrendetan agertzen direnak ere zerrenda orokorrean sartuko dira, baldin eta titulazio baldintzak betetzen badituzte.
3. Berariazko zerrendak, irekiera edo proba bidez sartuak.
4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) bidez hautatutako izangaiak.
5. Eskakizunik gabeko zerrenda: 2019/2020 ikasturtean kontratatutako eta eskakizunen bat betetzen ez duten. pertsonen zerrenda.
6. Kontratazio deialdi bereziak.

## AHP (PAI) egonkortzeko oposizio-lehiaketatik eratorriak diren aldi baterako kontratazio-zerrendak

Atzerriko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetarako, egonkortzeko PAI oposizio-lehiaketatik eratorritako zerrendek lehentasuna izango dute indarrean dauden zerrenda arrunten gainetik. Honela ordenatuko dira:

1. Ingelesa irakasteko programako lan eskaintza publikoan lanposturik gabeko gainditduak (lehentasunezko zerrenda).
2. Ingelesa irakasteko programako lan eskaintza publikoa (zerrenda orokorra).
3. Espezialitate bera (borondatezkoa).
   - 3.1. Gaztelania, C1 eskakizunarekin.
   - 3.2. Euskara, C1 eskakizunarekin.
   - 3.3. Gaztelania, B2 eskakizunarekin.
   - 3.4. Euskara , B2 eskakizunarekin.
4. Haur eta Lehen Hezkuntzako Atzerriko hizkuntza espezialitatea gaztelaniaz (borondatezkoa).
   - 4.1. C1 duten gaztelaniako izangaiak.
   - 4.2. C1 duten euskarako izangaiak.
   - 4.3. B2 duten gaztelaniako izangaiak.
   - 4.4. B2 duten euskarako izangaiak.
5. Haur eta Lehen Hezkuntzako Atzerriko Hizkuntzako espezialitatea euskaraz (borondatezkoa).
   - 5.1. C1 hizkuntza-eskakizuna duten izangaiak.
   - 5.2. B2 hizkuntza-eskakizuna duten izangaiak.

Beste hizkuntza bateko zerrenda arrunteko langileak ez daude behartuta LETean derrigorrez parte hartzera eta kontratazioa berriak zerrenda orokor arruntean sartuko dira.

Zerrendak amaitu ondoren edo halakorik ez badago, AHP plazak eskainiko zaizkie, nahitaez, hizkuntza bereko espezialitate asimilatuei dagozkien zerrendetan agertzen diren izangaiei, dagokion atzerriko hizkuntzaren profila egiaztatuta izanda (IP, FP edo ALEP).

## Behin behineko, praktiketako eta zerbitzu eginkizuneko lanpostuen esleipenak

**Destinoa aukeratzeko hurrenkera** (273/2023 ebazpena, abenduaren 19koa (2023-2024 ikasturtea))

1. Funtzionarien zerbitzu eginkizunak **osasun arrazoiengatik**.
2. Lan karga ezarengatik, itinerantea izatera pasatzeagatik edo egiaztatu gabeko perfila izateagatik bere zentrotik **desplazatua** ateratzen den irakaslegoa: ikastetxean bertan mantenduko dira beste espezialitate batean, kontrakorik komunikatu ezean. Titularrak diren espezialitateen arabera aukeratuko dute. Desplazamendurako irizpideak:

   Maisu-maistrak:

   - Behin betiko destinoan edo zonaldean etengabeko aintzintasun txikiena duena.
   - Karrerako funtzionario, kontratatu edo langile finko gisa, Maisu-maistren kidegoan, zerbitzuaren lehen urtea kenduta, lanean denbora gutxien daramana.
   - Maisu-maistren kidegoan sartze data berriena duena.
   - Zerrendan zenbaki handiena, edo kidegoan sartzeko egindako prozesuan nota bajuena duena.

   Katedradunak, DBH, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak, Teknologiako Irakaslegoa, IHEO, Arte Plastikoak eta Diseinua, Musika eta Arte Eszenikoak:

   - Dagokion funtzionari kidegoan karrera funtzionario bezala lanean denbora gutxien darama edo lan kontratu finkoarekin. Lehen zerbitzu urtea ez da puntuatuko.
   - Behin betiko destinoan etengabeko aintzintasun txikiena duena.
   - Maisu-maistren kidegoan sartze data berriena duena.
   - Ematen den kasuan, dagokion Katedradunen Kidegoko parte ez izatea.
   - Kidegoan sartzeko egindako prozesuan nota bajuena duena.
3. **Behin behineko destinoa** duten funtzionariak.*
4. **Irakasleentzako zerbitzu-eginkizunak seme-alaba adingabea zaintzeagatik eta salbuespenezko egoerengatik.**
5. **Praktikaldia egiten** ari diren funtzionariak. Beren oposizioko espezialitate eta hizkuntzan edo antzeko lanpostuetan aukeratuko dute, espezialitate, lanpostu edo hizkuntzako funtzionarioen lehentasuna errespetatuz.*
6. Behin behineko destinoarekin **birsartu** direnak. Beren oposizioko espezialitate eta hizkuntzan edo antzeko lanpostuetan aukeratuko dute, espezialitate, lanpostu edo hizkuntzako funtzionarioen lehentasuna errespetatuz.
7. Irakaskuntzako lanpostuetan prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izangaiak

Espezialitate eta hizkuntza horretan nahitaezko baldintza da titularra izatea edo perfilean gaituta egotea eta hizkuntza egiaztatua izatea. Espezialitate eta hizkuntza horretan bakanterik ez badago, beste postu bat esleitu ahalko da, espezialitatean titularra den irakaslegoari aukeraketan lehentasuna bermatuz. PT edo ALE espezialitateko titularrek BHko eta DBHko institutuetan ere aukeratu ahal izango dute. DBHko eta LHBPko irakasleek LHPko desagertuko den kidegoko irakasleekin batera parte hartuko dute, plaza berberak aukeratuz.

Esleipena telematikoa izanen da eta idatziz informatuko da Hezkuntzako web orrian:
www.educacion.navarra.es

Zerbitzu-eginkizunak eta behin-behineko destinoa dutenak edo atzerriko hizkuntza eskakizuna duten plazetan praktiketan daudenak: eskakizun hori duten plazak baino ezin izango dituzte eskuratu eta lehentasuna izango dute. Bete gabe geratzen badira, PI, PF edo PALE hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten funtzionarioek edo dagokien hizkuntza-eskakizuna duten zerrendetan agertzen diren hautagaiek aukeratu ahal izango dituzte.

* 1o. Behin-behineko destinoa duten funtzionarioak eta praktiken ondoren gai direnak, 226/2022 LLko behin betiko destinoak izan ezik, horiek LLko behin betiko puntuazioaren arabera joango baitira. 2. 243/2022 eta 245/2022 EMBko irakasle funtzionarioak. 3o. Praktiketako funtzionarioak sarrera puntuazioaren arabera. 4o. Behin betiko destinoa galdu zuten funtzionarioak, 226/2022 LLn lortu ez dutenak eta lanera itzultzea eskatzen dutenak. Antzinatasun-ordenaren arabera, 23ko maiatzera arte joango dira funtzionario eta kontratatu gisa.

Zerbitzu eginkizunak

Klikatu

# Zerbitzu eginkizunak

39/2023 FD, apirilaren 19koa. Titularra den espezialitateen plazetan eskatu ahal izango da lanlekua.

<table>
<tr><th colspan="2">Eginkizun mota</th><th>Iraupena</th><th>Dokumentazioa</th><th>Konzesioa</th><th>Oharrak</th></tr>
<tr><td>Interesatutako pertsonek eskatuak (Ikastetxe konkretuan esleituko da kargu publikorako hautetsia denean, eta batzordeak erabakitzen duen zentroan gainontzeko kasuetan)</td><td>1. Osasun arrazoiengatik.<br>2. Toki korporazioko kargudunak.<br>3. 6 urterarteko adintxikikoen zaintza (lanlekua 50 kmtara eta bikotekidea lanean edo kustodia bakarra).<br>4. Ohiz kanpoko egoerak (gaixotasun larria edo beste herri batean senitartekoa menpekotasun handiarekin).</td><td rowspan="2">Ikasturte 1, gehienez ondoz ondoko 4 ikasturte senide baten gaixotasunaren kasuan.</td><td rowspan="2">Tipologiaren arabera:<br>1. Eguneratutako osasun txostena.<br>2. Toki-korporazio bateko kide dela egiaztatzen duen agiria.<br>3. Familia liburua.<br>• Errolda (12/31eko datarekin).<br>• Zinpeko deklarazioa.<br>4. Eguneratutako osasun txostena.<br>• Gaixo dagoen pertsonaren bizileku ziurtagiria.<br>• Gizarte Segurantzako edo gizarte-langileak emandako gaixo dagoen pertsonaren menpekotasun-maila adierazten duen ziurtagiria.</td><td rowspan="2">Eskudun organoa edo horretarako eratutako batzordea.</td><td rowspan="2">• 44/2021 F.D. (4. art).<br>• 340/2021 Ebazpena, abenduaren 23koa (2022/2023 ikasturtea) NAO 22. zb.<br>• Hemendik aurrera, pertsonalki abisatu ordez NAOen publikatuko da.</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Antolakuntza arrazoiengatik (Hezkuntza Departamenduak proposatuta)<br>Hautaketa irizpideak:<br>1. Zerbitzu denbora luzeagoa.<br>2. Sartze urtean aintzinatasuna.<br>3. Sartze puntuazio altuagoa.</td><td>• Ikastetxe berriak edo ezarpen berriko irakaskuntzak.<br>• Atzerriko hizkuntzen programak.<br>• Musikako goi mailako kontserbatorioan.<br>• Zuzendaritza karguengatik.<br>• Langileen behar espezifikoak behar bezala justifikatuta.</td></tr>
<tr><td>• Berariazko proiektu edo programetan (urteroko deialdi publikoa).</td><td>Gehienez 2 ikasturte.</td><td>Deialdiaren ezaugarrien araberako memoria baten defentsa.</td><td>Horretarako eratutako batzordea.</td><td>44/2021 F.D. (2. art)<br>• Hemendik aurrera, pertsonalki abisatu ordez NAOen publikatuko da.</td></tr>
<tr><td>• CAPak.<br>• CREENA.<br>• EIBZ.</td><td>Lehen aldia: 2 urte, 3 gehiago luza daitekeena (guztira 5). Bigarren aldiak plazaren erreserbaren amaiera dakar (LAL).</td><td>Memoria edo proiektu baten aurkezpena eta defentsa (baztertzailea, % 50) eta baremoa ( % 25eko antzinatasuna funtzionario edo kontratatu gisa eta % 25eko beste merezimendu batzuk).</td><td>Horretarako eratutako batzordea.</td><td>44/2021 F.D. (3. art)<br>• Hemendik aurrera, pertsonalki abisatu ordez NAOen publikatuko da.</td></tr>
<tr><td colspan="6">Eskaeraren aurkezpena: deialdia egin eta 10 egun baliodunera arte. Deialdi zehatza argitaratzen da, normalean martxoan. Adingabea zaintzeko kasuan, lekualdatze-lehiaketan parte hartu denean edo eskaera amaitu ondoren jaio denean, 3 egun baliodun daude lekualdatze-lehiaketaren emaitzen ondoren.<br>Uko egiteak: eskaeren aurkezpenaren epearen barnean, behin behineko erlazioa atera ondoren 3 egun arte edo behin betikoa atera ondoren 3 egun (adingabekoen zaintzaren kasuan). Behin esleitua, ezin izango da uko egin. Eskaerak Hezkuntza Departametuko Erregistroan, edo Erregistro Elektroniko bitartez.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gurutzatutako zerbitzu eginkizunak<br>• Ikastetxean behin betiko plaza duten eta 2 urte baino gehiago daramatzaten funtzionarioak.<br>• Plazek izaera eta hornikuntza modu bera izan behar dute.</td><td>2 ikasturte gehienez</td><td>• Deialdiak ezartzen duena.<br>• Administrazioaren adostasun txostena.</td><td>Giza baliabideen zerbitzua</td><td>44/2021 F.D. (5. art)<br>• Urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren 6. xedapen gehigarria.</td></tr>
</table>

# Talde aukeraketaren irizpideak

## 225/1998 Foru Dekretua, uztailaren 6koa

| Kidego | Irizpide | Esleipen eta ordena | Oharrak |
|---|---|---|---|
| Maisu-maistrak (10. artikulua) | • **Talde bera** zikloa osatu bitartean.<br>• Atxikirik dauden lanpostuaren espezialitatea.<br>• Gaiturik dauden irakasleek irakasten ahal dituzten bestelako espezialitateak. | **Zuzendariak honela banatuko ditu:**<br>1. Behin betiko irakasleak, lanpostuan duten antzinatasunari lehentasuna emanez.<br>2. Behin-behineko irakasleak, kidegoan duten antzinatasunari lehentasuna emanez.<br>3. Praktiketako irakasleak.<br>4. Aldi baterako kontratatutako irakasleak, lan kontratua izan edo kontratu administratiboa izan. | Zuzendaritzak adjudikatu ahalko ditu ikasle taldeak, ikastetxearen probetxamendua eta antolaketa hobetuko lituzkeen beste inguruabar batzuk kontuan hartzen baditu. |
| DBH 1° zikloan irakasten duten maisu-maistren kidegoko irakasleak (19. artikulua) | • Ziklora sartzeko bidea eman zien **espezialitateko** arloari dagozkion irakaskuntzak hartuko dituzte.<br>• Arlo berean eskola-ordurik ez badago, jakintza eremu bereko bi edo hiru arlo sartuko dira. | **Ekaineko klaustroan Zuzendaritzak taldeak esleituko ditu.**<br>• **Lehentasun-ordena:** deialdirik zaharrenekoak eta, antzinatasunean berdinketa izanez gero:<br>- Ikastetxean antzinatasun handiena.<br>- Norberaren Kidegoan antzinatasun handiena.<br>- Norberaren Kidegoan sartzeko izandako hautapen prozeduran lortutako puntuaziorik handiena. | • Ikasketaburuek, irakasleen ordutegia prestatuko dute eta erreklamazioak Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ebatziko ditu 15 eguneko epearen barnean. Epea amaitzen bada ebazpen espresurik eman gabe erreklamazioa ezetsitzat joko da.<br>• Mintegian adostasunik ez bada honako prozedura:<br>- Lehenengo dagokionari, irakatsi nahi duen ikasgaiaren talde eta maila hautatuko du.<br>- Ondoren, bigarren aukeratzea dagokionari, eta horrela hurrenez hurren, lehenengo itzulia osatu arte.<br>- Lehen itzulia osatuta, prozesua errepikatuko da ordutegia osatu edo denak esleitu arte. |
| Bigarren Hezkuntzako irakaslegoa (28. artikulua) | • Hurbiltasun kurrikular handieneko edo espezializazio txikieneko antzeko ikasgaiak.<br>• Mintegi bakoitzak txanda (egunekoa edo gauekoa, goizekoa eta arratsaldekoa), eraikina(alboko ikasketaburuak izan ezik), eta irakasgai eta maila adostuko du. Adostasunik ez bada, "hautatze ordena" atala.<br>• Maisu-maistren Kidegoko irakasleek DBH 1° ziklikoan irakatsiko du, Plastika eta Teknologia izan ezik. DBHn 2-3 arlo gehitu daitezke. | **Zuzendaritzak ekaineko klaustroan orduen inguruan informatuko die mintegie.**<br>• Taldeen banaketa IEOaren 41.5 artikuluaren arabera, KPBa kontuan hartuz eginen da.<br>• **Hautatzeko ordena:**<br>1) Ikastetxean behin-betiko destinoa duten katedradunak.<br>2) a) Espezialitateko titularrak, behin betiko destinoa ikastetxean izanik.<br>b) Ikastetxean behin-betiko destinoa duen Lanbide Heziketako irakaslea.<br>3) Ikastetxean ordutegia osatzerik ez dutelako bertatik mugiarazi dituzten irakasleak.<br>4) Destino zain dauden irakasleak.<br>5) Azken oposizio-lehiaketa gainditu dutenak.<br>6) Zerbitzu bereziak.<br>7) Aldi baterako kontratatuak, ikasturte hasierako jarraibideen arabera finkatuta:<br>a) 1. atala: antzinatasuna borondatezko eszedentzia kontutan hartu gabe.<br>b) 2, 3 eta 4. atalak: norberaren kidegoan karrerako funtzionario gisa duten antzinatasuna, ez da kontuan hartuko borondatezko eszedentzian izandako denbora (lan-kontratu finkoaren dataren arabera funtzionarizatuta, zerbitzuaren lehen urtea kenduta).<br>c) 1, 2, 3 eta 4. ataletan, antzinatasunean berdintasunik gertatuz gero, lehentasun ordena zehaztuko da ondoko irizpideak hurrenez hurren aplikatuz:<br>- Ikastetxean antzinatasun handiena.<br>- Kidegoan sartu zen urterik zaharrena.<br>- Puntuazio handiagoa hautaketa-prozeduran.<br>d) 5. atala: probak gainditu dituzten oposiziogileen ebazpenetan zein ordenatan agertzen diren.<br>e) 6 eta 7. atalak: Giza Baliabideen Zerbitzuko zerrendetan zein tokitan agertzen diren. | |

# Zentroen funtzionamendua

## Ordezkapen irizpideak 2023-2024 ikasturtea

| | | | |
|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntzako tutoretza eta 1, 2 eta 3 unitateko eskoletako irakasleak | Gutxienez 2 egun eta gehienez 4 (LET deialdiaren arabera) | Ikastetxeak:<br>- Baja 1 baino gehiagorekin.<br>- Landa eskolak.<br>- Pirinio eremukoak.<br>- LHko Formakuntza Zikloetako irakasleak. | 3 edo 4 egun. |
| RGD, CBU, OLHB, ikasgela alternatiboak, eta HB ikastetxeetako PTak | | | |
| Batxilergoko 2. mailako irakasleak | | Lehen Hezkuntzako tutoretzarekin, PT eta tutoretza duten espezialistak | 4. egunean.<br>2. egunean baja aurreikusita zegoen kasuetan. |
| HEO, PMAR eta PROA eta OLH eta CEPeko eremuak | | Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gainontzeko irakasleak | 7. egunean.<br>4. egunean baja aurreikusita zegoen kasuetan. |

### 2023/2024 ikasturteko ordezkapenak tramitatzeko prozedura

**Gizarte Segurantzako langileak (interinoak):** bere partea jasoko du, eta Gizarte Segurantzak Departamentuari jakinaraziko dizkio datuak. Datu horiek 2 edo 3 egunetan agertuko dira EDUCAn (langileak ez du baja-parterik aurkeztu beharko, ezta berrespen-agiririk ere, lehenengo 365 egunetan). Baja eta alta agiriak lehenengo egunean jakinarazi beharko dira.

**MUFACEko langileak:** ez dago aldaketarik, baina konpromisoa paperezko parteak ezabatzea da; dokumentazioa originala Departamentuari aurkezten jarraitu behar da eta kopia zentroari.

Gehienez ere hiru eguneko epean, lanera joan gabeko lehen egunetik zenbatzen hasita. Haren ondorengo berrespen-parteak hamabostean behin edo hilean behin aurkeztuko dira, medikuak hala uste badu. Medikuaren alta-agiriaren kasuan, gehienez 24 orduko epean jakinaraziko da, ematen denetik zenbatzen hasita.

MUFACEko langileen parte originalak Hezkuntza Departamentura bidal daitezke Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, aurrez aurre Nafarroako Gobernuaren Erregistro Ofizialeko edozein bulegotan, edo posta arruntaren bidez.

Era berean, nahitaezkoa izango da kopia bat ahalik eta lasterren lantokira aurkeztea edo bidaltzea, ikastetxeak zehatz-mehatz jakin dezan zein diren falta izandako datak, bajaren bilakaera eta/edo amaiera, eta, era berean, ordezkapena eskatu ahal izan dezan.

Alta-agiriari dagokionez, jakinarazpena egiteko ezarritako epea betetzen ez bada eta zentrora sartzen den egunetik zenbatzen hasita 2 egun naturaleko epea igarotakoan, zuzendaritzak Ikuskaritzako Zerbitzuari jakinaraziko dio, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera jardun dezan. Era berean, eragindako irakasleari idatziz jakinaraziko zaio.

Ordezkapenetarako, kotizazioetarako eta nominan eragina duten gainerako elementuetarako epeak betetzeko, Erregistro Orokor Elektronikoa proposatzen da komunikazio-biderik onena bezala.

Parteak bidaltzean edozein gorabehera izatekotan, helbide elektroniko hau ere erabili ahal izango da jakinarazpena egiteko:
planificacionrheducacion@navarra.es

**Ordezkapen-eskaera:** EDUCA bidez edo posta elektronikoz, bi kasuetan bajaren gutxi gorabeherako iraupena gehituz. Eskaeraren itxiera EDUCA bidez egingo da, itxiera-data adieraziz (alta-dataren berdina).

**Hona jo:**
planificacionrheducacion@navarra.es
(edo 848 423 218 telefonora).

MUFACEko eta Gizarte Segurantzako langileak ikastetxeekin komunikatzeko bideak, zuzendaritza-talde bakoitzak zehazten duen funtzionamenduaren arabera ezarriko dira.

Garrantzitsua da adieraztea gaixotasunagatiko baja egoeren berri emateaz gain, erditzeagatiko lizentziaren edo ama ez den gurasoarentzako lizentziaren tramitazioaren jakinarazpena, gehienez bost eguneko epean egitea, ezarritako prozeduraren arabera.

Ordezkapen-egoeretan ordezkoa ez bada lanpostura itzultzen, eta erregistro orokor bidez ez badio jakinarazten kontratuen atalari uko egiten diola lanpostuari, ikastetxeko zuzendaritzak mezu elektroniko bat bidaliko du contratoseducacion@navarra.es helbidera, plaza berriro eskain dadin.

**Bajen iraupenaren araberako jarduerak:**

- **5 egun baino gutxiagoko baja:** alta-partea egun berean edo hurrengo 3 egunetan izan daiteke.
- **5 eta 30 egun bitartean:** errebisioa ez da inoiz 7 egun natural baino gehiagokoa izango. Hurrengo berrespenek ezin izango dute 14 egun natural baino gehiagoko aldea izan elkarren artean.
- **31 eta 60 artean:** errebisioa ez da inoiz 7 egun natural baino gehiagokoa izango.

Berrespenak ezin izango dira eman 28 egun natural baino gehiagoko aldearekin.

- **61 egun edo gehiago:** errebisioa ez da 14 egun natural baino gehiagokoa izango. Berrespenak ezin izango dira eman 35 egun natural baino gehiagoko aldearekin.

## Funtzionarioen lanpostu-trukatzeak

1364/2010 Errege Dekretua, estatu mailako lekualdatze-lehiaketak arautzen dituena (6. xedapen gehigarria)

1. Ezohiko plaza trukatzeak ondorengo baldintzak betetzen dituztenak dira:
   a) Trukatzen diren plazetan behin betiko plaza izatea.
   b) Plaza horietan gutxienez 2 urteko behin betiko zerbitzuak egiaztatzea.
   c) Izaera eta hornikuntza modu berdintsua duten lanpostuak.
   d) Trukatzen diren plazen artean zerbitzu urte aldea gehienez 5ekoa izatea.
   e) Plaza bakoitzaren unitate administratiboarengandik adostasun txostena.
2. Hezkuntza administrazio ezberdinen menpe daudenean, batera baimendu behar dira.
3. 10 urteko epean ezin izango da beste plaza bat trukatzeko baimendu.
4. Baten bati jubilatzeko 10 urte baino gutxiago falta bazaizkio ezin izango da baimendu.
5. Hurrengo 2 urteetan eszedentzia edo borondatezko jubilazio bat gertatuz gero, efekturik gabe utziko da.
6. Plazan 2 urteko gutxieneko zerbitzua egiaztatu arte ezin izango da postuen hornikuntza lehiaketan parte hartu.

## Aniztasunari erantzutea

Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna (Foru Agindua 86/2018, irailak 14koa)

**Gehiengo ratioak**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HH eta LH | 25 | LHko Form. Zikloak | 20 | GM Sartzea | 30 | CEP | 10 |
| DBH | 30 | OLH | 14 | PILE | 10 | EU | 5 |
| Batxilergoa | 33 | IEHP | 12 (10 ordu 4.en Aplik.) | ELH | 10 (8 maila anitzekoa) | CBU | 7 (9ra igo daiteke) |

**Landa eskoletako ratioak**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur Hezkuntza | 3 maila bateratu | | | 14 | 2 maila bateratu | | | 16 |
| Lehen Hezkuntza | 2 kurtso | 16 | 3 kurtso | 14 | 4 edo 5 kurtso | 12 | 6 kurtso | 10 |
| Etapen arteko ikasgela mistoetarako | 2 etapa 2 maila | 14 | 2 etapa 3 maila | 12 | 2 etapa 5 maila | | | 10 eta laguntza irakaslea lanaldi 1/2 |

Hezkuntza Premia Bereziak eta 2 urteko Curriculum-egokitzapen Esanguratsua duten ikasleek bikoitza balioko dute. Ohiko eta ezohiko matrikula egiteko momentuan bikoizketak automatikoak izango dira. Ondoren, zentroari hezkuntza eskaintza bat proposatuko zaio, Itunaren Jarraipenaren Batzordeak bikoizketak aztertuz zentroa eta Departamentuaren arteko adostasunik egon ez bada.

**Laguntza irakasleak**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HH-ko 2. zikloa | 3-4 unitate | 18-22: irakasle 1/2 | 5-6 unitate | 18-22: irakasle 1 | 7-11 unitate | 18-20: 1,5 irak. | 12 unitate edo gehiago | > 18: 2,5 irakasle |
| | | > 22: irakasle 1 | | > 22: 1,5 irakasle | | > 20: irakasle 2 | | > 22: 3 irakasle |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Haur eta Lehen Hezkuntza | %10-20 HLBPI | Irakasle 1 | %20-30 HLBPI | 1,5 irakasle | %30 HLBPI | 2 irakasle. |
| | Hezkuntza laguntzako irakasleek edo/eta ikastetxeak bere autonomia pedagogikoa eta antolamenduzkoa baliatuz erabakitzen duen espezialitateko irakasleek beteko dituzte, behin betiko lanlekua ikastetxean duten Gutxiengo Kulturaleko irakasleei kalterik eragin gabe. D, A edo/eta G ereduak dituzten ikasketxeetan, eredu bakoitzaren egoera bere kasa aztertuz aplikatuko dira laguntza edo hornidurak. kasa aztertuz aplikatuko dira laguntzak. | | | | | |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DBH 1., 2., 3. | 16-20 ikasle | 4 ordu | >20 ikasle | 6 ordu | >20 ikasle eta %20-30 HLBPI | Beste 2 ordu |

HLBPI % 30etik goitikoa bada, 3 ordu esleituko dira talde bakoitzeko.

Aniztasunari Erantzutea
Klikatu

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroa (NHBBZ)
Klikatu

Bizikidetzarako Aholkularitza
Klikatu

Hezkidetza
Klikatu

# Lan osasuna

## Irakasleak | Nola jokatu lan istripu baten aurrean

Larria da?

EZ → Mutuara

- MUFACE, Montepíokoa bazara... → Bakoitzak hautatutako entitatera
  - Gizarte Segurantza
  - Hautatutako mutua (IMQ, Adeslas, Sanitas, Aegon...)
- Gizarte Segurantzakoa bazara → MUTUA NAVARRA www.mutuanavarra.es ✆ 948 19 44 00

BAI → 112ra deitu → Abisatu lan istripua dela

Eman beharreko pausoak: **1.** Zuzendaritzan komunikatu. **2.** Zuzendaritzak lan istripu eta gertakarien ikertze prozedura abian jarriko du. **3.** Gizarte aseguruen bulegora bidaliko du. **4.** Lan Arriskuen prebentzio atalera igorriko du.

Lan istripua, Hezkuntza

Klikatu

## Irakasleak | Irakasleek jasandako erasoen aurrean jarduteko protokoloa

Mehatxuak, irainak edo larderiazko jokaerak / Eraso fisikoa

→ Ikastetxeko zuzendaritzari edo hierarkian nagusi denari jakinaraztea

- Laneko Arriskuei aurrea hartzeko Atala ✆ 848 42 37 69 ✆ 848 42 37 28
- Erasoak Erregistratzeko eta Jakinarazteko Orria ✆ 848 42 37 38

→ Laguntza Psikologikoa / Aholkularitza Juridikoa

Kalte materialak

→ Ikastetxeko zuzendaritzari edo hierarkian nagusi denari jakinaraztea

→ Zerbitzu juridikoak ✆ 848 42 65 12

**Larrialdietarako telefonoa: 112**
**Mutua Navarra: 900 21 21 00**

Kanpo erasoen erregistro eta jakinarazpen orria

Klikatu

## Irakasleak | Nola jokatu laneko jazarpen-kasu baten aurrean

**Zuzendaritzari jakinarazi**
(Prebentzio Zerbitzuaren edo sindikatuaren bidez ere egin daiteke)

Zuzendaritzak 10.18 R Protokoloaren II. eranskina bidaltzen die Laneko Arriskuei aurre hartzeko Zerbitzuari eta Langileen kudeaketa atalei

↓

**Neurriak**

**Jazarpenik gabe:**
Bitartekaritza

- **Akordioa:**
antolamendu-neurriak hartu
- **Akordiorik gabe:**
Langileen kudeaketa Atalera (antolakuntza eta diziplina esku-hartzea) eta LAAZra (esku-hartze psikosoziala eta osasun-zaintza) bideratzea

**Jazarpenarekin:**
Ikerketa Batzordea (ekintza zuzentzaileak eta/edo diziplinazkoak dituen balorazio-txostena)

Nola jokatu laneko jazarpen-kasu baten aurrean

Klikatu

## Irakasleak | Prebentzio-prozedurak

NBEak hautatzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko prozedura. Erabilera-auditoriak

Klikatu

Prebentzio gomendioak

Klikatu

Dokumentu interesgarriak

Klikatu

## Ikasleak | Nola jokatu ikasleek izandako istripu edo gaixotasunen aurrean

Ikastetxearen, gurasoen eta administrazioaren betebeharra da adin-gabekoen bizitza arriskua eragoztea.

Istripua

1. Ikasleari laguntza.

2. Osasun etxera eramatea, beharrezkoa balitz (IAO).
Taxiz edo ambulantziaz ahal bada (ikastetxearen aurrekontuak).

3. Familiari jakinarazi.

Osasun-arretarako protokoloa

Klikatu

Gaixotasuna

1. Ohiko sendagaiak ematea: Mediku txostena eta familiaren baimen idatzia, ematea ohikoa denean.

2. Berariazko ekintza sanitarioa: Sendagaia ematean arriskua suerta daitekeenaren mediku txostena eta kualifikatutako osasun-laguntzaile baten (erizaina) esleipena ikastetxean edo anbulatorioan, edota osasun-etxera eramatea (IAO).

* Mediku txostenak familiek eraman ditzakete edo ikastetxeko zuzendaritzak eskatu.

# Bestelako informazio interesgarria

Haurdunaldi, jaiotza eta adingabekoen zaintzagatiko baimenen gida




Jubilazioak




LET




Interinoak Nafarroan

Txapela buruan
eta ibili munduan




LEPak

Maisu-maistrentzako eta Lanbide Heziketako lan-eskaintza publikoa







**STEILAS** Nafarroa

steilas
www.steilas.eus

**Nafarroa**
Joaquin Beunza, 4-6 behea • 31014 **Iruñea**
✆ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

Lege gordailua: DL NA 2403-2015.